

GIPUZKOA

San Ixidro eguna ospatu zuten Usurbilen

Ekitaldi ugari izan ziren baserritarren patroiaren eguna ospatzeko egun guztian zehar

JOSU ARANBERRI | USURBIL.

17 mayo 2014
00:25

Bihar izango den XXXIII. Sagardo Egunaren aurretik, 'II. Sagastiak Loretan' ekimenaren baitan San Ixidro eguna ospatu zuten pasa den ostegunean herriko dema plazan.

San Ixidro da nekazarien zaindaria eliza katolikoan eta urteetan zehar herriko nahiz inguruko baserritarrek egun hau ospatu izan dute maiatzaren 15ean.

Goizean trikitilariak ibili ziren kale kale eta meza nagusia izan zen Salbatore parroki elizan. Ondoren hamaiketako egiteko aukera izan zuten dema plaza ingurura gerturatu ziren guztiek.

Haragi egosia eta salda beroa hartzeko aukera paregabea izan zuten, edateko sagardo eta ardorik ere faltan ez zelarik izan.

Jarraian, herri kirol saioa ikusteko aukera ere izan zen. Jarraian, herri kirol saioa ikusteko aukera ere izan zen. Esnal aita-semeak eta Txapartegiren arteko desafioa izan zen lehendabizi aizkoran.

Zaldi proba ere izan zen dema plazan eta harri jasotzaileak ere lanean aritu ziren bertan bildu ziren ikusleen gozamenerako. Proba bakoitzaren tartean, berriz, Olaso eta Otamendi bertsolarien bertsoak entzuteko aukera izan zen. Behin goizeko ekitaldiak amaituta bazkaria izan zen Artzabalen eta arratsaldean erraldoi konpartsarekin kalejira.



Aizkolariak. Arrilla I eta II herritarrek ere lanean jardun ziren ostegunean. / NOAUA!

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuette, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariiovasco.com

Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián., 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.